

# BERRIGARA


35. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, maiatzak 17

## Maiatza loren hila

## Etxeko lorak nola zaindu



# OPEL



## TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea: 3 (Eskatu edifizioa)

OPEL KONTZESIONARI OFIZIAK HOBEEK

# BERGARAKO osasun gida

## ■ ALBAITARIAK:

• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGUA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

## ■ ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

## ■ BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

## ■ DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• SUDUPE FELIPE	Matxiategi, 18 behea ezkerre	☎ 76 07 66
• GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

## ■ FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Masterreka, 7 4. C	☎ 76 43 71
---	--------------------	------------

## ■ GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon María Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

## ■ MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• MARTINEZ LUIS JABIER	Masterreka 7, 3. A	☎ 76 51 18

## ■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

• ARCINIEGA JULIO	Boni Laskurain 3, 1. B	☎ 76 37 50
-------------------	------------------------	------------

## ■ PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

## ■ PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

## ■ PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerre	☎ 76 26 64
--------------------	--------------------------------	------------

## ■ PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76
• FERNANDEZ J.R.	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39

**Argitaratzailea:**

JARDUN Elkarte.

**Zuzendaria:**

Eneko Azkarate

**Erredakzioa:**

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezar

Jone Larrañaga

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate

**Publizitatea:**

Alex Azkarate

**Harpidetzak:**

Gorka Elortza

**Testuen zuzenketak:**

Estepan Plazaola

Marijo Laskurain

Alex Labaien

**Erredakzio kontseilua:**

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

**Komikiak:**

Bitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

**Banaketa:**

Txantxangorri taldea

**Tirada:**

4.000 ale.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**

BERRIGARA

**Lege gordailua:**

SS 50/91

**ISSN:**

1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultur sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

### ALFREDO GLEZ. CHIRLAQUE Orkestako zuzendaria

- Orkestaren X. urteurrena ospatzeko "El Rey Leon" eskeiniko duzue Pazkuetan...

- Horrela da bai. Azken batean, Musika Eskolako Orkestra zoriontzeko antolatutako muntaia da eta horregatik aukeratu dugu lan hori, gazteenzat oso aproposa delako. Hans Zimmer eta Elton Johnen musikak *Oscarra* irabazi zuen iaz eta musika oso atsegina da. Eta *La mision* eta *Miserable-ak* lanekin bezala, konpaktotik atera ditugu partiturak. Orkestarekin batera, Orfeoia, Aritzeta, Orfoei Gaztea, 12 ahotseko beste koro bat, rock talde bat eta 4 bakarlari arituko dira hurrengo ostiralean eta guztira 200 lagun inguruk hartuko dute parte kontzertuan.



- Zein da zailtasunik haundiena?

- Zailena talde guztiak batzea da, bata bestea erekin konjuntatzea. Azken egunetan gogor egin beharko dugu lan Frontoian, bestela guztiak biltzea ezinezkoa zaigu eta. Sarrerei dagokienez Musika Eskolan, Kultur Etxean, Ariznoan eta Lonbiden erosi ahal izango dira 1.000 pezetan.

**"Guztira 200 bat lagunek hartuko dute parte El Rey Leoneko kontzertuan"**

## I T U R R I O N E T I K

### Kanpoko igerilekuak ekainaren erdialdean zabalduko dira

Agorrosingo kanpoko igerilekuak ekainaren erdialdean zabalduko dira ziurrenik. Udal langileak berehala hasiko dira garbiketa eta txukuntze lanak egiten eta, beraz, aurreko urtetan bezala, ekainaren erdialdean zabalduko dira publikora kanpoko pizinak.

Josune Linazisorok, Udal Kirol Zerbitzuko Zuzendariak, Berrigarari adierazi dionez, baliteke igerilekuak ekainaren 14an zabaltzea. Ordutegia, berriz, joan den urteko berdina izango da. Horrela, kanpoko igerilekuak goizeko 10etatik gaueko 9ak arte izango dira zabalik. Bestalde, pasa den ostiraletik, maiatzak 10, zabalik dago Igerilekuetako taberna.

## E S A N D U T E

"PPk eta EAJk izenpetu dituzten hitzarmenei esker Europako zenbait erakundetan ere izango dugu ordezkariarik, garrantzizko erabaki ekonomikoak hartzen diren erakundeetan. Bidea asko erraztuko digu horrek, zuzen zuzenean jakingo baitugu zeintzu neurri hartuko diren Europan. Eta neurri horiei buruzko iritzirik, bederen, eman ahal izango dugu"


### MARI KARMEN GALLASTEGI

Ekonomia irakaslea  
ARGIA

"Nekazaritzak aberastasun aldetik garrantzi txikiagoa du, baina gizartearen orekarako ezinbesteko da. Euskadik ezin du industria alorra bakarrik garatu, nekazaritza ere kontutan izan behar da"

### JABIER RETEGI

Industria Sailburua  
ARRASATE PRESS




**PENA DE MUERTE**

Ostirala: 22:30.  
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.  
Igandea: 17:00, 19:00, 22:15.  
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**Anje Duhalde**

Iparraldeko kantariak emanaldia eskeiniko du gaur 22:30etan Gartzela Zaharrean. Jardun Elkartek Kartzelan, hileru, kultur ekitaldiak antolatzeko asmoa dauka eta Errobiko kantari ohia izango da lehen gonbidatua. Anje Duhalde bere kantuak abestuko ditu gaur gaueko emanaldian.



**Zinea**

▼▼ **Tim Robbins** aktore eta zuzendariak errodatutako filme honek aurtengo *Oscarretan* lau izendapen lortu zituen eta **Susan Sarandon**ek aktorea onenari zegokiona eskuratu zuen. *Helen Prejean* monjaren (**Sarandon**) istorioa kontatzen zaigu. Hiltzaile baten (**Sean Penn**) konfesatzailea izateak kontraesanak sortuko dizkio, heriotz zigorraren aurkako eta biktimenganako gupida sentimenduak agertuz...

▼▼ **Txo** taldeak "Re9n" titere tekla emanaldia eskeiniko du igandean arratsaldeko 7etan eta 9etan Pol-Pol tabernan. Europan zehar ibili ondoren, Nartxi Azkargorta Taun-Tauneko kide izandakoak eta saxofonista batek ikuskizun benetan bitxia landuko dute. Larunbatean Elgoibarko Otzak tabernan izango dira gaueko 10etatik aurrera.



**Deiak**

▼ **1936an** jaiotakoan anaiarte-ko eguna ekainaren leian. Eguerdiko mezaren ondoren, bazkaria Antxoni jatetxean. Izen-ematea (2.000 pezeta) maiatzaren 25a baino lehen Euxebio II (76 07 92) eta Antxoni (76 20 40) tabernetan.

▼ **Erakusketa.** Simon Arrieta zeramika taldearen erakusketa maiatzaren 26ra arte Kultur Etxean.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 18:30etan Seminarioan.


▼ **Kafe antzerkia.** Oihulari Klown eta Zingili Zangala taldeak ostegunean 22:00etan Pol-Polen.

▼ **Taun-Taun** txotxongilo taldearen *Bi kate* lana larunbatean, hilak 18, gaueko ordu batean Elgoibarko Lanbroa tabernan.



**Ogia**

▼ **Igandea 19:** Bolintxo.



**FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 17:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Larunbata 18:** Estella/Amezua.
- ▼ **Igandea 19:** Estella/Ruiz.
- ▼ **Astelehena 20:** Mozos/Morales.
- ▼ **Asteartea 21:** Camacho/Azko.
- ▼ **Asteazkena 22:** Puy/Español.
- ▼ **Osteguna 23:** Guallar/Corcuera.

**Zure konfidantzako denda**



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

**ARRASATE**

# Haurren Euskal Jaia

## 200 bat dantzari etorriko dira Euskal Herri osotik

**Igandean** Haurren Euskal Jaia ospatuko da Bergaran. XXIII. edizio honetan Arrasate (bi talde), Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Antzuola, Sorraluze, Altsasu, Orereta eta Bergarako dantzari gaztetxoak (6 urtetik 14 urtera bitartekoak) izango dira goizean goizetik ka-leak alaitzen.

Aranzadi Ikastolako dantza taldea izango da parte hartuko duen herriko dantza talde bakarra. Guztira 200 dantzari inguruk hartuko dute parte Haurren Euskal Jaian. Xamatx dantza taldeak eta Aranzadi eta Mariaren Lagundiko gurasoek antolatu dute aurtengo edizioa. Xamatzeko ordezkari baten iritziz, *"gero eta nekezagoa da Haurren Euskal Jaia aurrera eramatea. Umeak etxeetan bazkaltzeko hartzeko adibidez zailtasunak izaten dira eta jendeak orokorrean interes gutxiago azaltzen du urtetik urtera"*.

### Eguerditik dantzan

Egitarauari dagokionez, goizeko 10etan talde guztiak Seminarioko patioan bilduko dira eta ondoren, 10:30etan, Santa



Gipuzkoako zinta dantza, neskek igandean eskainiko duten dantzetako bat.

Marina parrokian meza izango da. Ordubete beranduago, 11:30etan, Seminarioko futbol zelaira kalejira egingo da eta bertan bokadilloak banatuko zaizkie dantzari. Eguerdiko 12etan, Plazan, alkate eta alkatesa txikiei ongi etorria egingo zaie eta bertsolarien saioa izango da. Jarraian dantza talde

guztiak dantzak eskeiniko dituzte herriko kaleetan eta bazkal aurretik, 13:30etan, zenbait dantza taldek euren dantza bereziak dantzatuko dituzte Plazan bertan. Ordu bietan haurrak bazkaltzera joango dira etxeetara eta nagusiak, berriz, herriko 5 elkartetan bazkaltzeko bilduko dira.

Arratsaldeko 5etan guztiak kalejiran Plazara joango dira eta ordu erdi beranduago dantzen alardea izango da, txistulari guztien partaidetzarekin. Mutilek *Jorrai dantza*, *Txakarrankoa* eta *Banankoa* eskeiniko dituzte, neskek *Gipuzkoako zinta dantza*, *Esku dantza* eta *Arku dantza* eta, amaitzeko, guztiak batera *Dominguillo* eta *Gorulari*, *Larrain dantza* eta *Fandangoa* eta *Arin-arina*. Arratsaldeko 7etan jaialdiari amaiera emango zaio.

**Aranzadi Ikastolako taldea izango da parte hartuko duen herriko talde bakarra**

Industria hornikuntzak



Industriaren alde

# MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE • Telefonoa: 79 42 22 • Faxe: 76 47 89

Santa Cruz, 25 ARETXABALETA • Telefonoa: 77 11 75 • Faxe: 77 13 08

## Bergara Kirol Elkarteari atletismo pista buruz

Gehienok jakingo duzuen bezala, Agorrosingo futbol zelai 6 kaletako atletismo pista batez inguratuta dago.

B.K.E.-ri azaldu nahi dioguna zera da: bertara korrika egitera joaten garenek gero eta oztopo gehiago aurkitzen ditugula korrika egiteko orduan.

Pasiatzera etortzen den jende kopurua gero eta haundiagoa da eta behin baino gehiagotan kale gehienak pertsona bat edo gehiagoz beteta egoten dira. Honen ondorioz korrika egiten dugunok etengabe eseak egiten ibili behar dugu (kontuak atera zenbat aldiz aurreratuko dituen korrikalari batek oinez eta alden-duta doazen 3 pertsona ordu laurden batean adibidez).

Horregatik pentsatzen dugu ez litzatekeela gaizki egongo pasiatzera doazena lehenengo kalea libre utziko balute. Begira zein eskuzabalak garen: korrika egiteko eraiki den pista batetako kale bakar bat korrikalariarentzat eta beste bostak korrika egiten ez dutenentzat. Ez al da proposamen on bat?

Artikulu hau bertara joateko ohitura duten guztiek irakurriko ez dutelako B.K.E.-ri zera eskatuko genioke: futbol zelaiaren sarreran karteltxoren bat ipintzea pistaren erabilpena arautuz.

Ah, eta ahaztu baino lehen, futbol

zelaiaren arduradunak lehenengo kalea mangeraz betetzen duen bakoitzean (belar gainean ez omen dago lekurik) bigarren kalea izango litzateke libre edukitzea gustatuko litzaugukena. Baten batek mangera hauek zapalduz txorkatila okertzen badu ez da hori gertatzen zaion lehena izango.

I. B. (15.380.930)

X. L. (15.383.779)

I. E. (72.445.973)

## Kultur Etxean edariak

Ikasle talde bat gara eta ia egunero Kultur Etxeko liburutegira joaten gara ikasi eta lagunartean egoteko asmoz.

Liburuak alde batera laga eta behera jeisten garenean faltan botatzen dugu freskagarrien makina bat. Egia da kafeak eta txokolateak ateratzeko makina bat jarri zela eta neguan batez ere asko eskertzen da. Baina orain, uda heltzearekin dagoenez, eskertuko genuke koka-kolak eta horrelako edariak ematen dituen beste makina bat. Ideia ona iruditzen zaigu.

Ez dakigu norengana zuzendu eta beraz dagokionari gure proposamena luzatu nahi genioke. Eskerrik asko.

IKASLE TALDE BAT

## Berrigara berezia

**Datorren astean Pazkuetako Berrigara berezia jasoko duzu etxean. Ohiko Berrigararen ordez, jaien inguruko 44 orrialdeko ale berezia izango da. Bertan, Pazkuetako jai egitaraua, ekitaldi azpimarragarrienei buruzko erreportaiak, protagonistei egindako elkarrizetak, iritzi artikulak edota herritarrei kalean egindako inkestak aurkituko dituzu, besteak beste. Jai buruzko informazio sakon eta zehatzena, beraz, datorren asteko Berrigaran.**

## Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



**Moda desfilea**

Bihar larunbata, hilak 18, arratsaldeko 6etan eta 8etan ikasketa bidaiaren aldeko moda desfilea izango da Ipintza Institutoan.

**Musika Eskola**

Datorren ikasturterako aurrematrikula ekainaren 15era arte izango da zabalik.

**Igerilekuak itxi**

Igerilekuak itxita egongo dira Pazkuetan, larunbatetik asteartera.

**Aranzabal Lagunartea**

Aranzabal Lagunartean iganderako antolatutako bidaiari bertan behara geratu da sarrerarik ezin izan delako lortu. Hala ere, goizean autobusez joan nahi duten guztiei dei egiten zaie peñakoekin kontaktuan jartzeko.



Eskutaldea pilota enpresa aurkeztu zeneko argazkia, orain dela urtebete inguru.

**Bergarako Udalak Pilotalekuaren gestioa eskuratuko du**

Bergarako Udalak Udaltzailek Pilotalekuaren gestioa eskuratuko du. Gogoratuko duzuen bezala, iazko martxoan Herederos de Gabilondok Eskutaldea enpresari laga zizkion Frontoiaren errenta eskubideak 2016 urtera arte, Udaltzailek Frontoiaren berritze lanak egin zituen baina Eskutaldea ez ditu lehen mailako pilota partiduak antolatu azken hilotan Bergarako Udaltzailekuan.

Orain, Udaltzailek 25 milioi pezeta ordaindu beharko dizkio Eskutaldeari

Frontoiaren ardura berriz hartzeko eta aurreko kontratua bertan behara lagatzeko. Kopuru hori 12,5 milioko bi epetan ordainduko zaio Eskutaldeari, lehen zatia orain eta bigarrena datorren urtean.

Era berean, Udaltzailek eta Asegarcen enpresak kontratua sinatuko dute aurki Udaltzailekuan lehen mailako partiduak antolatzeko. Oraindik ez dira zehaztu kontratu horren ezaugarriak eta baliteke kontratua Pazkuen ostean sinatzea. Kontratua bost

urterako sinatuko litzateke eta Asegarcen 24 pilota jaialdi antolatuko litzateke urtero Bergaran.

Astelehenean Plenoa izango da eta Eskutaldearekin lortutako akordioari oniritzia emango dio Udaltzailek.

Udaltzailek Pazkuetako jaiaren aurretik itxi nahi zuen hitzarmena Asegarcenekin, baina oraindik ez da ezer sinatu.

Kontuak kontu Asegarcen jaietan lehen mailako pilota jaialdiak antolatzeko konpromezua hartu du.

**HILDAKOAK**

- Juan Mari Garai Iturbe**  
Maiatzak 8, 49 urte
- Josefa Rajado Sanchez**  
Maiatzak 8, 88 urte
- Bernardino Lamarian Ugaldea**  
Maiatzak 11, 80 urte

**JAIOTAKOAK**

- Maitte De Pedro Lazkano**  
Apirilak 26
- Andoni Etxezarreta Conde**  
Maiatzak 10
- Maika Gallastegi Meabe**  
Maiatzak 14

**MUGICA**  
GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3  
☎ 76 10 34

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta, 5  
☎ 76 20 34

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

### Barnetegiak

Gipuzkoako udal euskaltegiek ekainaren 30etik uztailearen 14ra bitartean barnetegiak antolatuta dituzte Beizaman eta Lizartzan. Matrikula epea maiatzaren 24ra arte egongo da zabalik Bergarako Udal Euskaltegian. Prezioa 31.000 pezetakoa da eta interesatuek 76 44 53 telefonora deitu dezakete informazioa eskatzeko.

### San Martzialgo taberna

Datorren ekainaren 30ean San Martzialgo taberna hartu nahi duten herriko elkarteek euren eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udaletxeko Erregistro Orokorrean maiatzaren 24ko 13.30a baino lehen.

### AEKanpadarako laguntzaile bila

Maiatzaren 31tik ekainaren 2ra bitartean AEKanpada egingo da Diman, Bizkaian. Larunbatean lan egiteko laguntzaileak behar dira eta interesatuek 76 05 18 telefonora deitu dezakete.

### Helduen Heziketa Iraunkorra

Helduen Heziketa Iraunkorreko zentruak (HHI-EPA) ekainaren 10etik 21era bitartean hainbat ikastaro antolatu ditu. Besteak beste, eskulanak, masajea eta yoga, mekanografia, zeramika edo enkuadernazio ikastaroak emango dira. Interesatuek ekainaren 5a baino lehen egin beharko dute izen-ematea, Barrenkale 33an edo 76 44 52 telefonon. Bestalde, 1996/97 ikasturterako matrikula ekainean egin ahal izango da. Argibideak goian aipatutako telefono zenbakian jaso daitezke.



Herri barruko hainbat kaletan ezezik auzoetan ere jarri dira kontenedoreak.

## Papera, pilak, kartoia eta beira batzeko kontenedore berriak

### *Guztira 12 kontenedore berri jarri dira*

Deba Garaiko Mankomunitateak papera, kartoia eta pilak biltzeko kontenedore berriak jarri ditu herriko hainbat tokitan. Aurretik horrelako 19 kontenedore zeuden Bergaran eta Mankomunitateak beste 11 jartzea erabaki du.

Kontedore berriak Ibarra, Martokon, Arrizurin, Mintegin, Komenion, Koldo Eleizalden, Matxiategin, Maduran, Uberan, Osintxun eta Angiozarren jarri dira. Aipatutako kontenedore gehienak herrian jarri badira ere, hemendik aurrera Ubera, Osintxu eta Angiozar auzoetan ere hondakinak kontenedoreetan lagatzeko aukera izango da.

Bestalde, beira jasotzeko 31 kontenedore zeuden herrian eta Mankomunitateak Maduran jartzea

beste bat erabaki du. Mankomunitateak jakinarazi duenez, herritarrek horrelako kontenedoreak erabiltzeko gero eta ohitura haundia daukate eta horregatik kontenedoreen eskaintza zabaltea erabaki da. Horrela, Deba Garaian beira jasotzeko 49 kontenedore gehiago jarri dira eta papera, kartoia eta pilak jasotzeko kontenedoreen eskaintza, berriz, 50 kontenedoretan gehitu da.

Kontenedoreak astean behin husten dituzte Mankomunitateko langileek. Era berean, herritarrek berarek modurik egokienean erabiltzeko eskatzen zaie. Horretarako, hondakin mota bakoitza dagokion kontenedoreetan lagatzeko eskatzen diete herritarrei.

## Nafar, s.a.

### Rekanbioak

San Lorentzo 25 BERGARA ☎ 76 16 98 - 76 39 59



Banatzale ofiziala

1958. urteaz geroztik profesionalen zerbitzura!!



## MOTUL

300 V  
COMPETICION

## FERNANDEZ



Oihal puskarak  
Oihalak

San Antonio, 3  
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2  
☎ 76 53 22



# Gorlako kantina berria datorren asteazkenean inauguratuko da

*Iñaki Txueka Nekazaritza diputatuak inauguratuko du*

Datorren asteazken eguerdian, maiatzak 22, Gorlako kantina berria inauguratuko da. Bertan, besteak beste, Iñaki Txueka Nekazaritza diputatua, eta Mikel Larrea eta Victoriano Gallastegi Antzuola eta Bergarako alkateak izango dira. Kantina orain urtebete amaitu zen baina bertara ura eramateko arazoak egon dira. Azkenik, Antzuola eta Bergarako udalek eta Diputazioak hitzarmena sinatuko dute datozen bi urtetan ura Itxumendiko depositotik eramateko.

Kantina ez da jendearendako zabalduko ekainaren azkenaldira arte eta horretarako Udalak kantina adjudikatze lehiaketa publikorako deialdia zabalduko du aurki. Kantina berria 70 metro karratuko zu-

rezko borda antzeko eraikuntza da.

Gorlako parkea bisitatu ondoren, Iñaki Txueka diputatuak San Martzialera bisita egingo du datorren asteazkenean. Udalak San Martzial ingurua txukuntzeko asmoa dauka eta, bide batez, San Martzial egunerako jarri eta urte guztian zehar bertan egoten diren mahaien arazoa konpondu nahi du.

Proiekturik landu ez den arren, harrizko mahaiak jarri nahi dira eta horrez gain zuhaitzak landatu eta aparkaleku bat egiteko asmoa dago. Udalak proiektua egin ahal izateko Diputaziotik dirulaguntza jasotzea espero du. Esan behar da Gorlako parkea egiteko Diputazioak 13 milioi pezetako dirulaguntza eman zuela.



## Ertzaintzak opio landarak atzeman Azkarruntzen

Bergarako Ertzaintzak opioaren familiako 500 landare inguru atzeman zituen asteartean bi ortutan, Azkarruntzen. Aipatutako landareetatik opio gordina ateratzen ei da eta honek ilegalak diren morfina eta kodeina ei ditu.

## 87 urtekoei omenaldia

Igandean 87 urte dituzten bergarrei omenaldia eskeiniko zaie. 11etan meza izango da San Pedron eta 12:15etan txistorra, trikitilariak eta opari banaketa iragarri dira Jubilatuetan.

## Pazkuetako txekorketa

Maiatzaren 26ko txekorketarako sarrerak 1.500 eta 2.000 pezetan salgai daude Ganbara, Canalejas, Zer-Nai, Urrats eta Usoa tabernetan eta Kultur Etxean. Kuadrilendako prezio bereziak izango dira.

## Jubilatuen oharrak

Diputazioak 65 urtetik gorakoentzat Donostian hiru eguneko egonaldiak antolatu ditu. Argibideak 900 43 43 43 telefonoan. Bestalde, janari tailerra antolatu da Jubilatuetan ekainean. Izen-ematea maiatzaren 27a baino lehen Jubilatuetan.



Asteazkenean inauguratuko den arren, ekainera arte ez da zabalduko.

**Kabia** TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.  
Karta (2.000-3.500 pzta. artean).  
Okela eta arraina parrilan (enkarguz).  
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

**A mets**

**Ford**

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK  
Berezano auzoa OÑATI

# Jose Mari Rekondo

## Torero izandakoa

**Jose Mari Rekondo donostiarra 1948ko maiatzaren 17an toreatu zuen lehen aldiz Bergaran. Larunbatean, Zezenzaleak taldeak eskeini zion omenaldian esan zuenez, "hildako lehen txekorra eta lehen muxua beti gogoratzen dira".**

**- Nola gogoratzen duzu orain dela 48 urteko txekorketa hura?**

- Gauza horiek ez dira nolanahi ahazten. Bergara beti neure buruan daramat nire aurreneko txekorra hemen hil nuelako. Hori oso berezia da.

**- Zelan egin zinen toreatzaile?**

- Gure aita oso zezenzalea zen eta mutil koskorra nintzela zezenkete-tara joaten nintzen. Hortik hasi zitzaidan zaletasuna. Ondoren, Madrilgo


lagun batekin hasi nintzen, zezenik gabe, "toreo de salon" delakoa egiten: berak ematen zidan kapotea, muletak...

Gero aitari esan nion toreatzaile izateko asmoa neukala eta uste nuen ez zuela ontzat hartuko baina berak lagundu egin zidan. Salamancara joan eta horrela hasi ginen, piskanaka-piskanaka, langintza guztietan bezala...

**- Zenbat urte eman zenituen toreatzaile?**

- 1947an hasi eta 59an erretiratu nintzen. Alternatiba Zaragozan hartu nuen, 1955ean eta 4 urte-tan zezen-hiltzaile. Gero ez nuen horrenbesteko suerterik izan eta utzi egin nuen. Erretiratutokoa ordezkarri edo apoderatu lanetan hasi nintzen eta horrela jubilatuta arte. Gaur egun Torremolinos-en bizi naiz.

**"Orain 40 urte Bizkaia zen toreatzaile gehien ematen zituen herrialdeetako bat"**



Jose Mari Rekondo zezenzaleek eman zioten trofeoarekin.

**- "Euskal Belmontea" deitzen omen zizuten...**

- Horrela da, toreatzeko antzerako estiloa genuela esaten zuten batzuek baina nire ustez oker zebiltzan, ez zen horrenbesteko eta. Hura Belmonte eta ni "del monte", Igeldokoa naiz eta...

**- Gipuzkoak eman duen azken toreatzaile zara. Gaur egun zergatik ez da irtetzen toreatzailerik?**

- Bizkaian lehen asko irtetzen ziren, orain 40 urte toreatzaile gehien ematen zituen herrialdeetako bat zen, Sevilla, Madrid eta Cordobaren atzetik. Gipuzkoan, berriz, azkeneko toreatzaileak Pedrucho eibartarra, Mazzantini elgoibartarra eta neu izan gara.

Orain mutiko koskorrak pelotan eta futbolean ibiltzen dira, herri guztietan daude frontoiak eta. Toretzeko, berriz, ez dago batere erreztasunik, ganaderiarik ez dagoelako. Pena ematen didan? Noski, nahiago nuke zaletasun haundiagoa egotea.

**- Bergarako txekorketara etortzeko asmorik bai?**

- Ez, urruti bizi naiz eta. Omenaldi honetara etorri naiz bakarrik. Eta oso pozik nago, ilusio haundia egin dit. Niretako bizkarretik 48 urte kentzea da hau eta ez da gutxi hori!!

**- Torremolinosen bizi izanda, zelan egiten duzu hain ondo euskaraz?**

- Badakizu non egiten dudan? Ametsetan!!

**IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia  
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**Aldoka  
Maldoka  
TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA

## Ekologia

### Etxeko lorak

**- Zer erakusten duzu Jardunek antolatutako ikastaroan?**

- Lorazaintzaren inguruan gauza pilo bat daude. Azken finean, naturarekin harreman bat edukitzeko ondo datoz horrelako ikastaroak. Gainera esan behar da Bergara oso lorazalea dela. Ez dago begiratu besterik. Beste herriekin konparatuta askoz ere lorategi eta lora gehiago daudela.

**- Zertan desberdintzen dira kanpoko eta etxeko lorak?**

- Euren jatorrian batez ere. Kanpoan jeranioak, alegriak... eta horrelakoak erabiltzen dira eta barruan, berriz, "sotobosque" edo gerizpean agertzen direnak. Dena den, esan behar da hemen etxerako erabiltzen direnak ez dira Euskal Herriko lora autoktonoak izaten. Mediterraneo aldeko lorak erabiltzeko joera dago: potoa eta antzerakoak, hosto haundiko lorak azken batean.

**- Zer egin behar da lorak ederrago izateko?**

- Ez dago misterio haundirik. Erabiltzen di-

ren sistemak nahiko onak izaten dira. Baina askotan ur larregi botatzeagatik edo abonua behar den moduan ez erabiltzearen izorratzen dira lorak. Azken batean dedikazioa behar da piskanaka piskanaka lorak ezagutzen joateko.

**- Egia al da lorek sentimenduak dituztela eta kantuan edo berba egitea ondo datorkiela?**

**"Etxerako jeranioak, alegriak, petuniak... betiko lorak primeran etortzen dira"**



Etxerako Mediterraneo aldeko lorak erabiltzeko joera dago.



**JUANJO SEBASTIAN**  
(Lorazaintza irakaslea)

- Egia esan ez dut horretan sinisten. Iletargian gehiago sinisten dut eta lorek, ilargiaren arabera, gorabehera asko izaten dituzte izerdiaren prozesuan adibidez.

**- Etxean non eduki behar dira lorak? Zein lora izatea gomenda-**

**tzen duzu?**

- Bere neurrian izanez gero, lorak etxeko edozein tokitan izan ditzakegu. Logelan ez edukitzeko kontu hori piskat fantasia izan daiteke. Ez dut uste lorek horrenbesteko oxigeno kentzen digutenik. Eta loreak aukeratzekoan, zaletasun handia izanez gero, gauza espektakularrak lor daitezke eta landare mota asko landu ditzakezu. Eta lan gutxi egin nahi baduzu jeranioak, alegriak, petuniak... betiko lorak azken finean, primeran etortzen dira. Oso lora gogorak dira eta ez dute lan asko ematen, gainera.

**- Zenbaterainoko eragina dute koloreek?**

- Lorategien eta etxeko loreen artean desberdinu behar da. Usondora eta horrelako parkeetara, adibidez, lasaitasun bila joaten da jendea eta horretarako berdea nagusitzen da eta gorriskak eta horrelakoak jarlekuetatik urrun egoten dira. Baina gauza horiek etxean ez dira kontutan hartzen. Inglateran ere jardinak jarrita edo etzanda egoteko daude eta hor ere berdea da nagusi. Suizan edo Austrian, berriz, oso mugatuta daukate loreen sasoia eta etxeko leiho eta balkoiak denak loraz beteta egoten dira, alderdi estetikoak bilatzen dute batik bat.

Irizar, 2  
76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**LONBIDE**  
**OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5    76 10 57    **BERGARA**

# Zenbat traba!!

## Oztopo arkitektonikoak kendu nahian

**Eguneroko bizitza egiteko kalean zein barruetan traba eta oztopo askorekin, gehiegirekin, egiten dute topo ezindu fisikoek. Taberna, denda, kutxazain automatiko zein komun askotan sartzea ezinezkoa da elbarrientzat. Oztopoak traba izan ez daitezten askotan nahikoa dute koxka txikituko duen ohol bat jartzeara, beste-rik ez.**

**G**izarte Ongizatekoen esanetan "bizitza normala egiteko aurkitzen den zailtasuna da oztopo arkitektonikoa. Edozein koxka, jaitsierarik ez duen espaloia, egokitu bareko komuna, e.a. Baina elbarriek bakarrik ez dituzte oztopo arkitektonikoak; Zaharrek eta erosketetako edo umearen karroarekin doan pertsonak ere badiutuzte. Gertatzen dena da elbarriek oztopo horiek sakonago bizi izaten dituztela, beti dutelako ezintasuna edo beti ibiltzen direlako aulkian".

Aritz Bikuña erruberdun aulki batean ibiltzen da; Agustín Toledok ez

du horren beharrik, baina oreka arazoak ditu. Aritz aulkiarekin alde batera eta bestera ibiltzen da. Norabait joan nahi badu ez du bi bider pentsatzen; hala eta guztiz ere, egunean zehar aulkia pasatu ezinik hamaikatxo traba izaten ditu: "leku askotan ezin izaten naiz sartu atea maila baten gainean egoten delako, eta espaloia askok ez dute rebajerik (espaloiarri altura gutxitu edo kentzen za-

ion zatia), beraz, espaloia asko ere ezin izaten ditut erabili. Plazatik zinera bitartean ez dago rebajebat ere, eta arazoak izaten ditut zinera, nabiz kale horretan dagoen edozein lekutara joateko".

Agustinek, aulkian ibili ez arren eta ezetz eman arren, arazo ugari du. "Espaloian rebajerik ez badago, ondoan dagoen koxka batean apoiatu behar dut jaitsi ahal izateko;

eta taberna edo barru batean baldin eta ranparik ez badago, arazoak izaten ditut sartzeko. Ranpa edo barandilla bat nabikoa izaten da ondo moldatzeko". Hala eta guztiz ere, biek esan digutenez lan asko eginda azken urteotan.

**Gero eta oztopo gutxiago**

"92an ikerketa egin eta berehala hasi ziren



Askotan oztopoa ezabatzeko nahikoa da barandilla, rebajera edo jartzeko eta kentzeko ranpa ipintzea.



Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

# ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...

**ESKUEN BIDEZKO  
SENDAGILEA**

**Reiki maisua - Naturista -**

Era guztietako gaisotasunen tratamendua  
gaisotasun kronikoak, nerbioetakoak,  
emozionalak, degeneratiboak...

**KONTSULTA: Aranerreka, 24 1. ☎ 76 56 66**

oztopoak kentzen. Ez genuen uste gauzak bain azkar egingo zirenik". Aritz eta Agustin Udalak Aspacerekin eta Aitonak-eko zaharrekin egindako txostenaz ari dira. Gizarte Ongizate zerbitzukoak arduratu ziren txosten hori egiteaz. "Elbarrituak eta arazoak dituztenak gizarte integratzeaz arduratzen gara: zein oztopo dagoen ikusi, ezabatzeke dirulaguntzak lortu, e.a."

Aitatutako txostenean herriko oztopo arkitektoniko eta urbanistokoen azterketa egin zen. Hone-la 92ra arteko oztopoak kontrolatuta edo neurtuta geratu ziren. Harrezkero, lehenasunen arabera oztopoak kentzen joan dira eta egiten diren lan berriek oztoporik izan ez dezaten eta legea betearazten saiatzen dira. "Azterketa egitea garrantzitsua da, baina azaltzen diren oztopoak ezabatzea garrantzitsuagoa. Dena den, elbarriak dira oztopoen berri ondoen dakitena eta euren gaitasuna josten dugu zer konpondu, aldatu edo kendu behar den jakiteko eta lehenasunak jar ditzaten. Bali-teke gauzarik sinpleena oztopo izatea".

Ongizatekoek informazioa jasotzen dutenean, oztopo horiek kentzeko dirulaguntzak jiratzten dituzte; oztopoak kendu eta lanak egitea Bulego Teknikoaren zeregina da.

### Asko egokitu behar da

Aspacekoentzat aurten egin beharreko lan nagusienak besteak beste, Ibaiondoko euren egoitza ingurua txukuntzea, kiroldegia egokitzea eta igerilekuetarako sarrera egokia egitea dira. Agustinek dioenez behin baino gehiagotan jausi da euren egoitza inguruan dena zuloz eta batxez jositako dagoelako.

Aritzi, berriz, zoluan dauden rejillean sarri katiatu zaio aulkia eta ez aurrera, ez atzera geratu da. Kiroldegiari buruz, haxe diote. "Aurten elbarrientzako boccia txapelketa izan da Bergaran. Ba, hamabost egun lehenago artean sarrera egokitzeke zuen. Nola parte hartuko dute elbarriek sartzeko aukerarik ematen ez dien kiroldegi bateko txapelketan! Hori bai, Kirol Zerbitzukoek jakinarazi bezain laister egokitu zuten. Sarrera behar bezala jarri bai, baina askotan sarrera egokitzearekin ez dira arazo guztiak konpon-tzen, barruetan ere baldintzatuta egoten gara: kiroldegian, esaterako, ez zegoen egokitutako komunik. Pentsatu! Ea da-



Elbarrientzako ezabatzen diren oztopoak denen onerako dira.

torren denboraldirako egiten dituzten". Kiroldegiari ez ezik, igerilekuari ere garrantzi handia ematen diote Agustinek eta Aritzek. "Ez sarrera, ez aldagelak ez daude egokituta. Liburutegira joaterik ere ez dugu..."


### Koxka eta zulo bat oztopoa

"Guk ere badugu kalean ibiltzeko eta nahi dugun lekuan sartzeko eskubidea. Koxka edo zulo txiki bat zu eta bion arteko barrera da, zu hor

barruan zaudelako, eta ni ezin naizelako sartu". Aritzi gertatu izan zaio lagun batekin ibili, taberna batera sartu nahi izan eta laguna Aritz ezin dela sartu ez konturatzea. "Jendea ez da konturatzen, eurek arazorik ez dutelako. Zenbat aldiz gertatu ote zaigu rebajeon kotxe bat apakatuta ikustea! Jendea ez da konturatzen espaloira igotzeko zatitxo hori besterik ez dugula, eta ixten badigute, kotxe artean, errepidetik joan behar dugula. Behin, esaterako, afari

**"Frontoirako sarrera egokia da, baina kantxara ezin gara jaitsi; komuna almazen modura erabiltzen dute" ARITZ BIKUÑA**

**BERGARA**  
**Karrozeriak**  
**Txapa - Pintura**  
Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31



**KORTA-ZAR**  
**Txokolategia**  
**Pintxo eta ogibartekoan**  
**espezialitatea**  
**OSTIRALETAN GOIZEKO**  
**9ETATIK ZABALIK**  
Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

bat izan nuen. Etxe par-  
reko rebajeon kotxea ze-  
goen aparkatuta; guraso-  
ak konturatu egin ziren  
eta goizaldeko ordu biak  
arte nire zain egon be-  
har izan zuten, bestela  
ezin bainintzen etxera  
joan. Bergarako jaietan  
eta beste zenbaitetan ere  
gertatu izan zait".

**Legea betetzen ote?**

Orain egiten diren  
obra publikoetan legeak  
dioena betetzen da eta  
oztopo arkitektonikoak  
saihesten dira. Hala ere,  
Aritz eta Agustin kexu di-  
ra duela gutxi berri den  
frontoia dela eta. "Gabon  
zahar eguneko kotilloira  
joan ginen: sarrera ego-  
kituta zegoen eta sartze-  
ko ez genuen arazorik  
izan. Barruan izan geni-  
tuen arazoak, ez baike-  
nuen kantxara jaisteko  
modurik; goian geratu  
behar izan genuen".

Jose Mari Etxeberria  
aparejadoreak gai honi  
buruz azaldu digu kan-  
txara jaisteko ezin zela  
eskailera kendu eta hor-  
ren ordez inolako ranpa-  
rik jarri, "%8ko aldapa  
izango lukeelako, legeak  
agintzen duena baino  
handiagoa. Zerbait egite-  
kotan frontoia egituraz  
aldatu beharko litzate-  
ke". Baina Aritzentzat eta  
Agustinentzat txarrena ez  
zen hori izan. Aritz komu-  
nera joan zen eta elbar-  
rirentzako komuna ka-  
xaz, lorez, eta beste ha-  
maika gauzaz beteta ikusi  
zuen, "almazen modura  
erabiltzen dute".

**Elbarriekin berba egin**

Elbarrien egoera na-  
barmen aldatu da aulki  
elektrikoak dituztenetik  
eta garraibideak egokitu

direnetik. "Leku publikoe-  
tan gero eta kontu han-  
diagoa izaten da oztopo-  
ak ez jartzen". Jose Mari  
Etxeberriak esan digunez  
Udala ezin da obra pribatuetan sartu. "Etxebizi-  
tzak edo urbanizazio bat  
egiten denean teknikoak  
oztopo arkitektonikoen  
legea betetzen den begi-  
ratzen du, baina obra  
pribatuetan, tabernetan,  
dendetan, e.a. ez gara  
sartzen".

Aritzek eta Agustinek  
diotenez, badira elbarriak  
kontutan izaten dituzte-  
nak eta estimatzekoa da;  
hala ere, hobe beharrez  
egiten diren zenbait ran-  
pa gaizki egiten direnez,  
egin aurretik elbarriekin  
hitzegiteko eskatzen du-  
te. "Pol-Poleko edo Usoa-



ko ranpak, esaterako, ez  
dago ez igotzerik, ez jais-  
terik, umeak jolasteko  
txirristak besterik ez di-  
ra. Behin sekulako eska-  
pada egin genuen Polen,  
eskerrak jendeak lagun-  
du zigula! Beraz, zerbait  
egiten denean behar be-  
zala egiteko, elbarriekin  
berba egitea komeniga-  
rria izango litzatekeela  
uste dugu. Gainera egi-  
ten diren lanak ez dira  
gure onerako bakarrik,  
denek eskertzen dituzte:  
kotxe sillarekin, makulu-  
ekin, erosketako karroa-  
rekin eta abarrekin  
doan edonoren onerako  
da". ■

# Ate berri bat SAN PEDRON

Maiatzak

**22**

Asteazkena

19:00etan

**DENDA BERRIA  
inauguratu behar  
dugu lehengoaren  
ondoan. ETORRI  
ZAITEZ ikustera.  
Zerbait egongo da!!**

*Marga*

*San Pedro, 20-22  
Bergara*

76 05 37

**%10**

**Gutxiago**

**MAIATZAREN 23tik 31ra**

# Alex Barruso

## Elkarriko kidea

**Alex Barrusok Bergarako Elkarriko tallerrean lanean dihardu orain dela bi urte t'erditik. Giza mugimendu honek Bergaran antolatu dituen eztabaida foruen eta orokorrean Elkarriren zereginaren eta etorkizunaren inguruan berba egin dugu berarekin.**

### - Zertan dihardu Elkarriko une honetan?

- Elkarriren filosofia, akordio batera eramango gaituen elkarriketa bultzatzea izan da hasieratik. Hori gizarteak nahiko berenganatuta dauka, eta baita alderdi politikoei eta Estatuak berak ere, nahiz eta ez aitortu. Hala ere, pauso hori gauzatzea da falta zaiguna. Hori horrela izanik, Euskal Herri osoan zehar eztabaida guneak antolatzen ari gara herriz herri, gizartea elkarriketa hori gauzatzen has dadin, bakoitza bere posturak azalduz, bai inon kokatuta ez dauden herritarren eta baita ideologia jakin batean kokatuta egon daitezkeen herritarren artean.

### - Hau guztia bi urte-ara begira egiten ari zarete. Ondoren zer?

- 1997an Elkarriko giza mugimendu bezala egingo dako lanaren ebaluaketa egingo du eta hasieran


markatutako estrategiaren arabera emaitzarik ikusten ez bada, orduan erabakiko du desegin, jarraitu edo zer egin.

### - Eta zer gertatu behar da helburu horiek lortzeko?

- Aitortu behar da gizartean elkarriketaren beharra somatzen dela. Baina hori egia izanda ere, aitortu behar da era berean, une honetan egoera zeharo blokeatuta dagoela. Pake proposamen guztiak hartuz gero, elkarriketa nahia somatzen da, baina gero bakoitza bere esparruan itxita dago, bakoitzak bere proposamena aurrera eraman nahi du eta besteena ez du onartzen. Gutxienez ikusi beharko genuke nolabaiteko desblokeo bat egon dela eta hasi dela pake prozesu hori bideratzen.

### - Eta desblokeo hori lortu daiteke?

- Une honetan badaude elementu batzuk baimenak izateko, borondate aldetik batez ere. Bestetik, Espainiako gobernuak aldatu da eta balorazio sakona egiteko datu zehatzik eduki ez arren, somatzen da PPK bere diskurtsoa lehundu egin duela. Hala ere, hobe da zuzur jokatzeko eta ilusio faltsurik ez sortea.



"Ortodoxiatik irtetzeko gauza izan behar gara, iritziak kontrastatzeko".

### - ELA eta LABek daramaten sindikal ekin-tza bateratua hartu izan du Elkarriko eredu-tzat.

- Bai, sindikatuek erakutsi dute gauza izan direla ados jartzeko eta elkarrekin lan egiteko. Horrek adierazten digu posible dela interes amankomunak kontrako interesen gaitetik jartzea. Ekin-tza sindikala izan arren, sindikatu bakoitzak betetzen duen esparruarengatik espektro abertzalearen barruan mugitzen diren alderdietako jendea hartzen du eta alderdi estatulisten inguruan biltzen direnak harrapatu ez arren, behintzat, abertzaletasunaren barruan dabilen jendearengana heltzen da eta hori positiboa da.

### - PP eta PSOE eztabaida dinamika horretan sartzea izango litzateke, beraz, helburua?

- Alde batetik bai, baina alderdi abertzaleek landutako pake proposa-

menak mahai gainean jarri eta horiek ere eztabaidatzen hasi beharko ginateke. Esate baterako, "lurralde batasuna" edota "autodeterminazioa" aipatzen dituzte guztiek eta hori zelaz gauzatu eztabaidatu eta argitu beharko litzateke, bakoitzak bere ikuspuntua du eta. Estatuari orain arte ez zaio iritsi proposamen amankomunik. Abertzaleen artean ados jarri beharra dago, baina ezin daitezke ahaztu abertzale ez direnak, guztien artean eztabaidatu behar da.

### - Hala ere, bakoitzak bere alderdiaren estrategiari jarraitzen dio...

- Norbait ideologikoki esparru batean kokatuta dagoenean eta zabaltasun batera heltzen denean pentsatzen du bere diskurtsoa ahultzen doala, eta horretan ez jaustearren ez du aurrera-pausorik ematen. Planteamentu okerra dela uste dut, zeren ez dago zertan ezer gorderik edota diskurtsoa ahulduz, beste norbaitekin berba egitearren. Ortodoxiatik irtetzeko gauza izan behar gara, iritziak kontrastatzeko.

**"Pake proposamen guztiak hartuz gero, elkarriketa nahia somatzen da, baina gero bakoitza bere esparruan itxita dago"**

# Haurrak adoptatuko zenituzke?



**Jose Mari Ormaetxe**  
38 urte, langilea

Ez dakit, galdera oso zaila da. Gainera, bi ditugu eta nahikoa dela uste dut. Baina umeak edukitzeko arazorik izango bagenu beharbada adoptatuko genituzte bai.



**Juanjo Arizmendi**  
35 urte, langilea

Bai, baietz uste dut. Horren beharra edukiko bagenu adoptatuko genituzke. Oztopo bakarra horrek dakarren kostua izango litzateke.



**Ines Beitialarrangoitia**  
34 urte, langilea

Bai, ez dut planteatu bat dugulako eta gehiago izateko asmoa dugulako. Baina ezingo banu eduki bai, dudarik gabe gainera.




**Matilde Fernandez**  
42 urte, etxekoandrea

Bai baina gizonarekin eta familiarekin hitzegin eta guztiok ados jartzea nekeza da. Niregatik bai, adoptatuko nituzke.



**Kontxi Lasagabaster**  
Etxekoandrea

Daukadan adinarekin nekez. 7 seme-alaba izan ditugu eta ez dugu horren beharrik izan, baina bestela adoptatuko genituzke. Ondo iruditzen zait.



**Jose Antonio Arriola**  
65 urte, jubilatua

Ez, zaharrak garelako, jubilatuta gaude... Seme zaharra gurekin dugu, ezkondata dago eta sekula ez dugu horrelakorik planteatu.


Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu

## LENIZ ALUMINIOAK


Bi orriko atea

*Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.*

Bi orriko leihoa




Orri bateko atea: 73.000 pzta.!!!




**L**eihoen neurria  
Lzurre  
beharretara  
egokitzen dugu.  
Mota guztietako  
leihoak ditugu:  
poliuretanoa,  
aluminioa, apurketa  
termikoa...

**Oharra:** Prezio hauetan instalazio osoa sartzen da.



Orri bateko leihoa: 54.000 pzta.!!!





## Ingurugiroa

Itoitz, Abiadura Haundiko Trena, Maltzaga-Urbina..., proiektu ezberdinak baina guztietan amankomuneko arazo bat: etekin ekonomiko eta ekologikoaren arteko norgehiagoka, eta ondorioz, lehentasuna zeri eman erabakitzeko beharra.

Gehienetan, lan hauek sor ditzaketen kalte naturalak bigarren maila batean jartzen dira, nahiz eta naturari gero eta garrantzi gehiago eman. Dena dela, arazo guzti hauen muina lurrarekiko dugun harremanean dagoelakoan nago.

Herri indigenen eta gure artean badago funtsezko ezberdintasun bat; hauek ez dute beraien burua ingurugirotik at ikusten. Eta jakina, lurraren kontra jotzea beraien buruaren kontra egitea izango litzateke.

Chiapas, Amazonas edota Canadako indioek duten arazo nagusia lurrarena da, lurrik gabe herri izateari uzten baitiote, eta hori argi eta garbi daukate.

Lurrarekiko harreman hori naturaltasun osoz bizi dute eta berau ulertzeko ez dute mugimendu ekologiko baten beharrik.

Gure gizartearen sentimendu hori barneratzen ez dugun bitartean, zaila izango da gizakion eta ingurugiroaren artean desiatzen dugun oreka lortzea.

**Jon Ander BENGOA**



## Azterketak

Ekaineko edozein egun. Goizeko seiak. Gaur ere goiz jeiki haiz, lau hilabete luzetan paper mordo batean zirriborrutako guztiari azken begirada emateko. Baina bada-kik/n inori ez zaiola axola eta urtero bezala, aste amaigabe askotako lana ordu bete eskas batean xahutzera zehatu hau patuak.

Dutxa bat hartu duk/n, baina, gogoetek hire burmuin ketsuan pilatzen jarraitzen ditek/n. Azkenengo hilabetea iritsi arte ez haiz ikasten hasi eta azterketak bihurtu dituk/n hiregan erlatibitatearen teoria behingoz ulertzeko pizgarri bakar. Ekaineko edozein egun hori denbora berak irentsiz gero, ez hituzke inoiz XIX. mendeko Espainiako historiaren xehetasunak ikasten hainbeste ordu galduko.

Eta horrek -hire izatearen estratetan behera galdutako azken mugan baldin bada ere- penatu egiten hau.

Ezin duk/n amorrazioa ezkuta; askotan azterketa bat gaintitzeak ez dik/n ezertarako balio, behinik behin programako hamazazpi gaietatik bi ikasi baldin badituk/n. Gainera, edozein egun honetan ere, autobusean ikasi beharko dituk/n Santo Tomasek lege naturalari eraxkitzen dizkion propietateak.

Sistema honek hondoa jo dik/n, baina, ortzi horretan ez duk/n beste alternatibarik begiztatzten eta kritika gogorrek jaurti arren, autobusetik jeitsi eta ekaineko edozein azterketa egiteko asmoz jarri haiz. 1. ¿Cuales son las tres razones...? (Eta gainera erdaraz!).

**Larraitz URIBESALGO**

## Pazkuak 96 •

### • PALMA DE MALLORCA •

Maiatzaren 19tik 26ra - Maiatzaren 26tik ekainaren 2ra

	7 gau	14 gau
Balmes Hotela **	29.900 pzta.	51.900 pzta.
Samos Hotela ***	31.900 pzta.	53.900 pzta.
Sol Magalluf Hotela ***	44.600 pzta.	68.900 pzta.

### • LANDAK • Maiatzaren 24tik 28ra

	LE HUCHET		PORT D'ALBRET
4 pertsona	24.350 pzta.	2/3 pertsona	21.800 pzta.
5 pertsona	26.100 pzta.	4 pertsona	27.600 pzta.
		5 pertsona	34.300 pzta.

## VIAJES EROSKI

BIDAIAK

Maixu Arano Pasealekua, 8 ARRASATE

### • SALOU • Maiatzaren 24tik 28ra

	Autobus barik	Autobusarekin
San Diego Hotela ***	9.180 pzta.	15.380 pzta.
Voramar Apartahotela	9.760 pzta.	15.965 pzta.
Cala Font Hotela ***	9.760 pzta.	15.965 pzta.
Europa Park Hotela ***	10.800 pzta.	17.000 pzta.
California Hotela ***	10.800 pzta.	17.000 pzta.
Olimpus Hotela ***	11.500 pzta.	17.700 pzta.
Salou Princes Hotela ***	11.750 pzta.	17.950 pzta.

Erreserbak egiteko deitu 79 99 22 telefonora.  
ARRATSALDETAN BERGARAKO  
CONSUMEN ERE IZANGO GAITUZU.




### ■ Patinadore gazteak

**Jarduneko Txorimalo Lehiaketako** 14 urtetik beherako sarituek Gasteizera irteera egin zuten larunbatean. Aske atsedean taldeak eta Jarduneko eskulan ikastaroan parte hartzen ari diren neska-mutikoez arratsalde osoa igaro zuten Gasteizko izotzeko kirol aretoan. Gaztetxoez patinatzen txorimaloak egiten besteko abilezia erakutsi zuten. Ez da gutxi...

### ■ Kontzertu arrakastatsua

Udal Pilotalekua leporaino bete zen igandean Musika Eskolako taldeek eskainitako **Udaberriko Kontzertuan**. Bertan, Orkestra Sinfonikoa, Haurren Abesbatza, Akordeoi Orkestra, Hizkuntza Musikaleko ikasleak eta Gazteen Bandak hartu zuten parte. Guztira, 300 bat ikasle izan ziren Frontoiko eskenatokian eta jendeak interes handiarekin jarraitu zuen ordu t'erdi inguruko emanaldia. Kontzertuaren ondoren, 170 lagun bildu ziren Espoloian bazkari herrikoian. Jarraian, Ibaiak taldeak alaitu zuen bazkalostea bere doinu alaiekin.



### ■ Arans-Giren 25. urteurrena

Igandean Arans-Gi gorren eskolaren XXV. urteurrena ospatzeko **herri bazkaria** izango da Udal Biltegian. Aurretik, ordu batean **Don Serafin Esnaolak** meza emango du Sierbetan. Bazkari honekin amaiera emango zaie Arans-Giren urrezko eztaiak ospatzeko antolatutako ekitaldiei. Bazkalostean, **Jose Antonio Agirrebeña** Arans-Giko presidentea izandakoa eta **Edurne Telleria** eta **Begoña Aperribai** irakasleei omenaldia eskeinko zaie. Bestalde, aurreko ostiralean ate irekiko ihardunaldia izan zen Arans-Gin eta gerturatuek bertan eskeintzen diren zerbitzuak ezagutzeko aukera izan zuten. Gaur egun 33 ikasle dira Arans-Gin (haurrak eta nagusiak zenbatu gabe) eta 25 urteotan 100 ikasletik gora pasatu dira ikastetxetik. Zorionak!!



# LARREA

## TABERNA

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA

## ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Kizkur

## ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



■ 1942an jaiotakoen afaria

1942an jaiotako bergararrek afaria egin zuten maiatzaren 4an Azpeitxi jaiotzean. Aurreko urteetan bezala, lagun dexente elkartu ziren (55 lagun oraingoan) eta guztiek primeran igaro zuten. Afalostean izango zuten bai euren kontuez hitzegiteko aukera... Datorren urtean ere biltzekotan geratu ziren. Bien bitartean, argazkiaren kopia bat jasotzeko interesa dutenak Lonbide zapatadendatik pasa daitezke.



■ Herriko argazkilariak bikain

Herriko argazkilariak sasoi onean daude eta, horren lekuko hainbat lehiaketatan, lortutako sari bikainak. **Joseba Egibarrek** lehen saria eskuratu du Aretxabaletako Nazioarteko Argazki Lehiaketan eta **Benito Canterok**, berriz, bigarren saria lortu du mendiko argazkietan. Bestalde, Donostiako Mendiko Diapositiba Lehiaketan Benito Cantero bigarrena izan da eta **Agustín Gurrutzaga** hirugarrena, Agustinek lehen akzesita ere lortu duelarik. Azpeitiko Rallyan **Jose Luis Feo** izan da irabazlea (goiko diapositibarekin) Beasaingo Argazki Lehiaketan Benito Cantero bigarren eta **Juan Antonio Unzurrunzaga** hirugarren izan dira eta lehen akzesita **Daniel Santosentzat** izan da. Azkenik, Reuseko (Tarragona) Estatu mailako Mostran, Benito Canterok Gaudi domina lortu du eta Salvador Vilaseca museoak Benitoren lana eskuratu du. Gure argazkilariek ez dute barkatzen...

Zertan dihardute ba?



Manu Muniategi

30 urteko margolari bergararrak Bancaixako pintura eta eskultura saria eskuratu du. XXIII. edizio honetan, besteak beste, Juan Manuel Bonet Valentziako Arte Modernoko Institutuko zuzendariak, Miquel Molims Bartzelonako Arte Garaikideko Museoko zuzendariak eta Jesus Fernandez Cid Abc egunkariko kiritikoak osatzen zuten epaimahaia. Muniategik milioi t'erdi pezetako saria jaso du. Bere hitzetan, "dirusariaz gain, sari hau oso garrantzitsua da Estatu osoan duen proiektioagatik".

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

Usoa Pub



☎ 76 38 57

Irala, 1

ZUBIAURRE aroztegia

Sarrerako eta barrurako atek, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

# Mireia Gallastegi

**Zuzenbide ikasketak burutu dituen Mireia Gallastegi 26 urteko gaztea Aranzabal Lagunarteko emakumeetako bat dugu. Orain sei urtetik hona Realeko bazkidea da eta hamabostean behin Anoetara joaten da txuri-urdiñak eta bereziki Aranzabal animatzera.**

- **Noiztik Realzalea?**
- Txikitatik.
- **Futboleko lehen oroitzapena?**
- Realak ligak irabazi zituenekoa.
- **Ikusitako partidurik onena?**
- Iazko 5 eta 0ekoa, Athleticen kontra.
- **Atotxa ala Anoeta?**
- Anoeta, politagoa delako.
- **Realeko jokalaririk onena?**
- Karpin eta Agus.
- **Eta zein kenduko zenuke hamaikakotik?**
- Loren.
- **Jokalaririk sexyena?**
- Karpin.
- **Gorroto duzun talde bat?**
- Bi dira, R. Madrid eta Athletic.
- **Arbitroekin sartzen zara?**
- Bai, denekin.
- **Zein da arbitrorik txarrena?**
- Ez dago batere dexenterik...
- **Zein da munduko talderik**



*"Datorren urtean Realak UEFarako sailkatuko da, Athletic-i sartzen dizkioten golak txalotzen ditut; Jokanovic eta Kodro fitxatuko nituzke Realerako. Igandeko derbya 6 eta 1 irabaziko dugu"*

**onena?**

- Milan.
- **Entrenatzaile bat?**
- Toshack.
- **Futbol zelai bat?**
- Nou Camp.
- **Realean atzerritarrak izatearen aldekoa al zara?**
- Hemen jokalaririk ez dagoen bitartean...
- **Karpin salduko zenuke?**
- Hemen geratzen bada hobeto.
- **Eta Aranzabal Madridera?**
- Ezta pentsatu ere.
- **Zein jokalaria fitxatuko zenuke?**
- Jokanovic eta Kodro.
- **Datorren denboraldian Realak zer?**
- UEFarako sailkatuko da ziur.
- **Marca irakurtzen duzu?**
- Noizean behin bakarrik, aurrean daukadanean.
- **Kirol kazetari bat?**
- Iñaki de Mujika.
- **Lagunekin futbolaz hitzegiten duzu?**
- Mutilekin bai.
- **Kinielan jokatzeko duzu?**
- Bai.
- **Athletic-i sartzen dizkioten golak txalotzen dituzu?**
- Jodeeee... Beti!!
- **Pronostiko bat derbyrako?**
- 6 eta 1.
- **Noiz arte itxaron beharko dugu beste 8 eta 1eko bat ikusteko?**
- Hurrengo urtera arte.



**LAGUN ARO**

ASEGURUAK



**AGENTEA-DELEGATUA**

**Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

Tfnua: 76 21 21  
**ANGIOZAR**

**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai herri erdian. Lorategiarekin. ☎ 76 15 76.

**Pisua** salgai Osintxun. Erdi amueblatuta, argitsua. ☎ 76 17 27/55 98 (gauze).

**Pisua** salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 09 37.

**Pisua** salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/56 07.

**Pisua** salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

**Pisua** salgai Bolun. 100 m2. ☎ 76 22 72.

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 25 32.

**Pisua** salgai San Antonion. ☎ 76 57 35.

Berriztutako **ganbara** San Pedron salgai. ☎ 76 24 05.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 25 31 (Alex).

**Pisua** alokairuan Bidekurutzetan. ☎ 76 36 99.

**Garajea** salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

**Garajea** salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89.

**Garajea** salgai Santa Marinan. ☎ 76 29 36.

**DENETARIK**

**Kanpin denda** familiarra salgai. ☎ 76 37 96.

**Denda-remolkea** salgai. ☎ 76 37 82.

**Nikon** 70210 "D" objetiboa salgai. ☎ 76 52 31 (Jesus).

2. eskuko **Mobylette** bat erosiko nuke. ☎ 76 15 81.

**Golf**-eko Wilson makilak salgai. ☎ 76 10 93/32 15 89.

**Imar** karro denda salgai. ☎ 76 59 56 (gauze).

**Boxer** txakurrak saltzen ditut. Otsailaren 5ean jaiotakoak. ☎ 76 06 84.

**Trialsineko** Monty bizikleta salgai. Egoera onean. ☎ 76 56 13.

**Opel Kadet** GSI kotxea (SS-AF) salgai. 16 balbula. ☎ 76 24 81.

**Segamegadrive** konsola salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

**Nissan** Vanette (SS-AK) salgai. ☎ 21 18 55.

**Mendiko bizikleta** salgai. ☎ 76 51 55.

**Lancia** Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

**Donostian** pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 47 26 62 (Irene).

**Karakol** eskilara salgai. ☎ 76 14 84.

**Mastin** txakurkumea salgai. ☎ 76 54 26.

**Casio** poltsikoko telebista salgai. ☎ 76 56 13 (Markel).

**Urrezko pultsera** galdu nuen asteburuan. ☎ 76 12 66.

**LANA**

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Errenta** aitopenak egiten ditut. ☎ 76 34 95 (Ander).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 04 65.

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

**Ileapaindegian** diplomadun neska batek lan egingo luke. ☎ 79 97 81.

**Euskara** klaseak hartuko nituzke, 3retatik 5etara. ☎ 76 58 73.

**Neska** batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 96 (Mertxe).

**BBB**, UBI eta unibertsitate mailako klase partikularrak. ☎ 76 35 37.

**Haurrak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia. ☎ 76 61 17.

**Ordenadorez** pasatzen dira lanak. ☎ 76 27 59.

**Zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 11 11.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

**BERGARA**

**ETXAGI**

**JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

EGUNERO GOIZEKO 8etan ZABALTZEN DUGU.  
KAZOLATXOAK, PINTXOAK ETA BOKADILOAK  
DIRA GURE BEREZITASUNAK.

**PIZINETAKO**

**TABERNA**

BERGARA ☎ 76 53 55


Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

**AKORT** Publizitatea

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

**KIRIBILTZO**  
ILEAPAINDEGIA



*"Bearten badira munduan arte mailan egiten denaren berri dutenak; Bergaratik kanpo bizi beharrik ez dago"*

*"Jaietan lehiaketak antolatu edo Jubilatuetan ikastaroak ematera ezin gaitezke mugatu"*

**LUIS LASKURAIN, BEARTEKO PRESIDENTEA**

## **"Gure helburu nagusia Bergaran arte zentro bat sortzea da"**

**Luis Laskurain pintore bergarra Beart herriko artisten elkarteko presidentea dugu. Orain dela urte t'erdi inguru sortu zen Beart eta Las-kurainek herrian arte zentro bat egiteko administrazioaren interesa botatzen du faltan.**

**- Zein da orain arte egindako lanaren balorazioa?**

- Herriko 47 artista gaude elkartean eta uste genuen kolaborazioa lortu dugu, oso zaila baita bakarka lan egiten duen jendea talde lanean jartzea. Helburu nagusia Bergaran egiten ez diren iharduerak kolektiboan lantzea litzateke eta hori lortzeko arte zentro bat, bailara mailan zentro kultural bat, martxan jartzea zen asmoa baina dirudien ez dago horretarako interes haundirik.

**- Zein litzateke zentro horren eginkizuna?**

- Esperientzia eta eza-gutzak elkartrukatzea artisten artean. Jesus Mari Lazkanok orain dela gutxi aipatzen zuen Berrigaran artista batek bere ezagutzak aberasteko hemendik irten beharra zuela. Beart kolektiboan badira



Argazkian Bearteko kide batzuk.

munduan arte mailan egiten denaren berri dutenak eta elkartruke horiekin guztiok irabaziko genuke, zalantzarik gabe gainera. Baina badirudi administrazioak ez duela arte zentro horretan gehiegi sinisten. Eta horrez aparte erakustoki egoki baten beharra botatzen dugu faltan.

**- Zeintzuk izan dira Beartek antolatutako ekitaldi nagusiak?**

- Zegoenari utsi (Gabinetako erakusketa, ikastaroak...) eta horrez

**"Badirudi administrazioak ez duela arte zentroan gehiegi sinisten. Eta horrez aparte erakustoki egoki baten beharra botatzen dugu faltan"**

gain, gauza gutxi. Arco erakusketara bidaiak eta horrelakoak, elkarterik gabe ere egin daitezkeen ekintzak. Azken batean, bi lagun ari gara lanean Bearten eta horrelako elkarte batek jaietan lehiaketak antolatu edo Jubilatuetan ikastaroak emateko ez du zentzurik.

**- Iaz bezala, Bedelkarrekin batera erakusketa bat antolatu duzue...**

- Pozik gaude esperientzia horrekin. Hala ere, 105 dendatan jarritako arte lanak 28 artistenak dira bakarrik eta horrek zenbait pintorek 5 edo 6 lan jarri behar izatea suposatu du. Jakin badakit iaz beste herri batzutatik eskurtsioak egin zituztela eskaparateak ikusteko, baina gustatuko litzaidake jakitea herriko jendea benetan arte lanak ikustera joaten den ala ez, eta bestalde, erakusketa honek dendarentzat salmenta igoera dakarren ala ez dakarren. Orokorrean pozik gaude eta maiatzaren azkenetan xake taldekoekin ere kolaboratuko dugu. Orduan xakearekin zerikusia duten lanak erakutsiko ditugu Kultur Etxean.

## 1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	49	19	90	51
2. BAR CANALEJAS	43	20	66	35
3. MADURA INDUSTRIAS GOL	35	19	68	45
4. MONGATXURRAK	34	18	76	36
5. KABIA	31	19	51	50
6. OGIZUN	29	19	58	60
7. ARLOTEAK	24	18	50	56
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	19	19	50	61
9. ORTZI	16	20	28	63
10. UFALA	13	18	48	85
11. OZAETA	7	19	45	96
12. BERGATRANS	0	0	0	0

## 2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	55	21	132	58
2. A ZE FLAXA	47	21	96	55
3. PAGOMENDI	38	21	95	63
4. ARTUSAMAK	38	21	71	48
5. UVE BIKOITZA	31	21	70	74
6. HALTZARI	24	21	48	84
7. NAIKARI HOOLIGANS	23	21	66	87
8. ETXAGI	22	21	88	115
9. AUTOBEREZI	22	21	71	73
10. KAYAK OS JARDINEIROS	20	21	82	99
11. ERI	19	21	63	80
12. INDARGORRI	17	21	31	62

## 3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	47	20	107	54
2. KIROLZALEAK	43	21	93	64
3. EZINLEIKE	39	20	89	54
4. LA JUVE	36	21	66	63
5. AMOZKIBAR	34	21	55	44
6. MOSKIS	32	22	67	83
7. NEKROFILIKOS	31	21	85	86
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	28	21	63	70
9. EH BITERRAK	25	22	48	78
10. IGANDEKOAK	19	20	55	82
11. SHAKTALE	14	21	44	78
12. ARI ARI	10	20	71	90

## 4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	43	18	90	38
2. GUADALEST	42	20	76	41
3. PJS	38	19	90	21
4. TXIPIRON	35	18	65	44
5. PATXARAN TEAM	32	19	73	56
6. OSINTXU	30	19	73	57
7. MATXAKATEGI	27	18	73	70
8. LABEGARAIETA	21	20	55	102
9. PATA NEGRA	17	19	51	107
10. ALDOKA MALDOKA	12	19	48	75
11. XURRUPAK	5	19	36	106

## PROTAGONISTAK



DAVID ROMERO

### ERROTAGAIN-EKOA

"Portero jokatzeko zoratu samar egon behar da"

### Noiztik atezain?

Duela 6 urte Labegaraietako futbito txapelketan jokatzeko hasi ginenetik. Lehen bestela aritzen nintzen, baina nahiko txarra nintzenez, portero hasi nintzen jokatzeko eta horrela jarraitzen dut.

### Aurten ere Errotagain txapeldun...

Bai, nahiko zail izan dugu, maila ona izan delako eta azkenera arte ezin esan zein izango zen irabazlea, baina azkenean irabaztea lortu dugu.

### Zer behar da portero jokatzeko?

Pixka bat zorututa egotea eta beldurrik ez izatea. Jokatzeko ari zarenean bakarrik baloia begira egon behar duzu.

### Lesiorik izan duzu?

Lehenengo urtean bi atzamar apurtu nituen eta orain lurrera erortzerakoan beti izaten da zerbait, baina arazo larriarik ez. Kanpoan jokatzeko lurra gogorra da, arazo gehiago izaten dira, baina ondo babestuta jokatzeko baduzu ez da ezer gertatzen. **Ze jokalarik ematen dizu arazo gehien?**

Mongatxurako Asier Elorzak. Ez dakit nola egiten duen, baina beti sartu izan dit eskuadratik golen bat, halere aurten ez du lortu.

## KOMENTARIOA

**Errotagain** dugu Labegaraietako Futbito Txapelketako garaile, txapelketa amaitzeko jardunaldi bat geratzen bada ere. Astebukaera honetan bukatuko da eta Kopa hasi aurretik mailaz igotzeko eta jeisteko Play-offak jokatu dira. Antolaketa Batzordeak zorian eman nahi dizkio Errotagain txapelketako talderik indartsuena eta onena dela erakutsi duelako. Bestalde, datorren asteartean, hilak 21, arratsaldeko 7etan bilera izango da Kultur Etxean Kopa Txapelketari buruzko hainbat kontu zehazteko. Antolaketa Batzordeak deia zabaldu du taldeetako ordezkariak bilerara joan daitezela.

## EMAITZAK

### 1. MAILA

ARLOTEAK-MADURA INDUSTRIAS GOL	5 - 1
ERROTAGAIN-BAR CANALEJAS	5 - 1
ORTZI-UFALA	1 - 3

### 2. MAILA

HALTZARI-NAIKARI HOOLIGANS	1 - 0
UVE BIKOITZA-ETXAGI	1 - 4
A ZE FLAXA-INDARGORRI	7 - 1
ARTUSAMAK-JAUJA OH ZEREZOS	2 - 2

### 3. MAILA

EZINLEIKE-AMOZKIBAR	3 - 1
KIROLZALEAK-SOROPOTROAK	0 - 9
EH BITERRAK-MOSKIS	2 - 4
NEKROFILIKOS-LA JUVE	3 - 3

### 4. MAILA

GUADALEST-LABEGARAIETA	1 - 6
------------------------	-------

## PARTIDUAK

### LARUNBATEAN BARRUAN

16:00: La Juve-Ezinleike • Nekrofilikos  
17:00: Nekrofilikos-Kirolzaleak • Ezinleike

### LARUNBATEAN KANPOAN

09:00: FAC-Matxakategi • Shaktale  
10:00: Shaktale-Soropotroak • Matxakategi  
16:00: A Ze Flaxa-Pagomendi • Ufala  
17:00: Ufala-Arloteak • A Ze Flaxa

### IGANDEAN BARRUAN

09:00: Osintxu-Txipiron • Igandekoak  
10:00: Igandekoak-Sopotroak • Osintxu  
11:00: Ogizun-Errotagain • Amozkibar  
12:00: Ari Ari-Amozkibar • Errotagain  
13:00: Bildurbarek Opel/Lam-Arloteak • Ari Ari  
16:00: Ufala-Kabia • Mongatxurak  
17:00: Madura-Mongatxurak • Kabia  
18:00: Aldoka-Pata Negra • Artusamak  
19:00: Artusamak-Etxagi • Pata Negra

### IGANDEAN KANPOAN

09:00: Haltzari-Indargorri • Txipiron  
10:00: FAC-Txipiron • Indargorri  
11:00: Eri-Autoberezi • FAC  
12:00: Shaktale-Ezinleike • Eri  
13:00: Patxaran Team-PJS • Ezinleike  
16:00: EH Biterrak-C. Bergara • Kayak OJ  
17:00: Uve Bikoitza-Kayak OJ • C. Bergara  
18:00: Naikari-Jauja OH Zerezos • U. Bikoitza

**T XINPARTAK**

**Gimnasia Erritmikoa**

Zapatuan 16:30etan Udal Pilotalekuan Gimnasia erritmiko erakustaldia izango da. Kantabria eta Nafarroako gimnastarik onenak izango dira Bergarako Ariznoa taldekoekin batera. Aerobic eta Xamatz taldearen erakustaldia ere izango da.

**Eskubaloian jokatzeko deia**

Bergara Kirol Elkarteko Eskubaloi sailak dei egiten die eskubaloian jokatu nahi duten 1980 eta 81ean jaiotako mutilei datorren asteartean arratsaldeko 6:15etan Kiroldegian egingo diren hautaketa frogetan parte hartzeko.

**BKEren zozketa**

Larunbatean Bergarako futbol talde nagusiak Oriokoren aurka jokatu duen partiduan egingo da BKEren urte bukaerako zozketa berezia.

**Nesken futbitoa**

Ekainean eta uztailean jokatu den Nesken Futbito Txapelketan izena emateko azken eguna datorren ostirala, maiatzak 24, da Gartzela Zaharrean. Hilaren 29an, bilera egingo da Kultur etxean 19:00etan, taldeetako ordezkarien artean egutegia eta beste hainbat kontu zehazteko.

**Datorren ostiralean jokatuko dira Eskola kiroleko finalak**

**Datorren ostiralean**

Eskola kiroleko finalak jokatu dira Ipintza Futbol zelaian eta San Martin ikastetxean. Herriko ikastetxeetako OHOk ikasleek osatutako talderik onenek neurtuko dituzte indarrak futboleant, eskubaloian, saskibaloian eta areto futboleant.

Aurten 1. mailatik 8. mailara arteko 495 haurrek hartu dute parte igeriketan, eskaladan, eskubaloian, piraguismoan, saskibaloian, futboleant, txirrindularitzan eta pelotan: Aranzadi ikastolako 317 haurrek, San Martin ikastetxeko 45ek eta Mariaren Lagundiko 133ek.



Era guztietako kirolak egiteko aukera izan dute gaztetxoek.

**Pelota finalak**

Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako 4 t'erdian jokatu duen eskuz binakako txapelketa azkarraren irabazleak Larrañaga eta Muguruza bikoteak izan

ziren, ostiralean Igartua eta Leteri 22 eta 15 irabazi ondoren. Aurretik, 3. eta 4. posturako partiduan Agirrek eta Aldaik Olasi eta Gutierrez irabazi zieten. Partiduak bukatu ondoren Xabier Zabaleta Kiroletako



Zinegotziak sariak banatu zizkien lau bikote onenei. Txapelketa, Kirol Zerbitzuak antolatu duen pelota astearren barruan zegoen sartuta. Bestalde, ostiral arratsaldean Udal pilotalekua herriko eskoletako haurrez beteta egon zen. Jose Mari Zezeaga eta Jokin Etxaniz pilotari profesionalekin jokatzeko aukera izan zuten haurrek.

**FUTBOLA. IPINTZA FUTBOL ZELAIA.**

- **Alebin mutilak. 17:15:**
  - Mariaren Lagundia A
  - San Martin A
- **Alebin neskek. 18:15:**
  - Mariaren Lagundia D
  - Aranzadi Ikastola D
- **Benjamin mutilak. 15:45:**
  - Antzuola E
  - Aranzadi Ikastola E

**SASKIBALOIA. SAN MARTIN ESKOLA.**

- **Alebin mutilak. 18:00:**
  - Aranzadi Ikastola B
  - Mariaren Lagundia B
- **Alebin neskek. 18:45:**
  - Antzuola B
  - Aranzadi Ikastola A

**ESKUBALOIA. SAN MARTIN ESKOLA.**

- **Alebin mutilak. 17:15:**
  - Aranzadi Ikastola A
  - Aranzadi Ikastola E
- **Alebin neskek. 18:45:**
  - Antzuola A
  - Aranzadi Ikastola B
- **Benjamin mutilak. 18:00:**
  - Aranzadi Ikastola D
  - Mariaren Lagundia B

**ARETO FUTBOLA. KIROLDEGIA.**

- **Kadete mutilak. 17:30:**
  - Ipintza Institutua B
  - Aranzadi Ikastola B



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Orioko

Preferente maila.

Larunbata, 17:15. Agorrosin.

## ◆ Bergara-Allerru

2. mailako jubenilak.

Larunbata, 15:30. Ipintza.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Aloña Mendi

Jubenil mutilak.

Larunbata, 18:30.

Labegaraieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Andraitz

Junior neskek.

Larunbata, 12:15.

Labegaraieta kiroldegia.

## PALA TXAPELKETA

Pala Txapelketako finalak.

## ◆ Alberdi-Gallastegi

Vilariño-Bengoa.

3. eta 4. posturako.

Larunbata, 15:30.

Osintxuko frontoia.

## ◆ Zabalo-Azkarate

Agirrebeña-Ubera.

Finala.

Igandea, 12:30.

Osintxuko frontoia.

## PELOTA

"Villa de Bergara" Pelota

Txapelketako finala.

## ◆ Muruamendiaraz-Rai

Apezetxea-De Luz

Ostirala, 20:00.

Udal Pilotaklekua.

# Jon Unamuno

## Ziklismoan lehen pedalkadak

**Jon Unamuno txirrindularitza munduan duela bi urte hasi zen eta Gipuzkoa eta Euskadiko jubenil mailako selekzioan dabil. Garaipenik lortu ez arren, 3 lasterketatan 2. izan da eta erlojuaren kontrako probetan maila bikaina erakutsi du.**

**- Egunean zenbat kilometro egiten dituzu?**

- Egun guztietan ez da berdina izaten, baina lasterketa daukagunean astean 400 km inguru egiten ditugu. Denboraldia azaroan hasten dugu eta urrira arte aritzen gara.

**- 17 urterekin ez al da gogorra urte osoan horrela ibiltzea?**

- Ez, gustora ibiltzen naiz, parrandarako denborarik daukadan? Ez asko, baina denboraldia amaitzen denean egiten ditut.

**- Txirrindulari moduan, nola definituko zenuke zeure burua?**

- Orain arte pentsatzen nuen ongi igotzen nuela, baina orain erlojuaren kontra ondo nabil eta igotzen ere nahiko ondo moldatzen naiz.

**- Nola baloratzen duzu orain arte egin dako denboraldia?**

- 12 lasterketa korritu ditugu eta hirutan 2. egin dut eta besteetan 20 lehenen artean sartu naiz. Bergarakoa ezin izan nuen bukatu, aurreko astean gaisorik egon bainintzen.

**- Zer falta zaizu garaipena lortzeko?**

- Ez dakit, baina uste

dut lortuko dudala lasterketaren batean irabaztea.

**- Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioan izatea garrantzitsua izango da, ezta?**

- Bai oso polita da. Bretañan izan ginen apirilean eta Holanda, Errusia, Frantzia, Belgika eta Suitzako selekzioekin parte hartu genuen. Erlojuaren aurkako proban 10. amaitu nuen.

**- Zer luzera dauka jubenil mailako lasterketa batek?**

- Normalean 80 km izaten dira. Hasiera-hasieratik topera irtetzen dugu, amaiera aldera men-

date bat izaten da eta hor erabakitzen dira gehiengotan lasterketak.

**- Noizko garaipena?**


- Datorren astean Gipuzkoako Erlojuaren Kontrako Txapelketa daukagu Alegin eta irabazteko esperantza daukat.

**- Zein da gehien gustatzen zaizun txirrindularia?**

- Orain Zarrabeitia, baina lehen Julian Gorospe.

**- Arriskutsua al da errepidean entrenatzea?**

- Batzuetan bai, baina kontuz ibilita ez da ezer gertatzen.



"12 lasterketatatik hirutan bigarren egin dut".

**"Gorospezalea izan naiz beti, baina Zarrabeitia dut gustokoen orain"**



## *Pazku jai bezperako pregoia*

**P**azku bezperan gaudela eta, 1965. urteko jai bezperako pregoiko argazkia ekarri dugu aste honetan Erretzatu Zaharrera. Orduan ere jaietarako irrikitzen egoten zen jendea eta egun batzuk lehenago hainbat ekitaldi izaten ziren herrian. Pregoiak ere jende ugari biltzen omen zuen San Martin plazan eta ekitaldia primerakoa izateko ezinbestekoak ziren argazkiko dantzari dotore hauek.

Erretzatu Zaharrera pospolin jantzitako neska politak ekarri ditugula eta, une hau aprobetxatuko dugu gogorarazteko domekan Haurren Euskal jaia ospatuko dela Bergaran eta hainbat tokitatik etorritako dantzariz beteko zaizkigula kaleak.

Argazkia 1965eko ekainaren 5ean ateratakoa da eta horra hor argazkian agertzen direnen izenak. Atzetik aurrera:

Nere Amaia Zabala, Arantxa Gallastegi, Elisabet Arrieta, Marisol Alberdi, Arantxa Balzategi, Esther Olalde, Mari Tere Anduaga, Miren Lazkano eta Garbiñe Lazkano.

*Argazkia: Bixente Jauregi "Altzeta"*

**ZUBIETA**  
*elektragintza*

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**umelaga**  
JATETXEA

IGANDETAN  
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

**UGARTE**

**AROSZTEGIA**

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxe: 76 54 91



Leiho  
termoakustikoak  
Horma armairuak  
Ateak  
Altzariak



**ELKAR**  
**ELEKTRAGINTZA**

Zure  
zerbitzura!!


Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**

# ZURE AMETSETAKO BAINUA, OBRAK HASI AURRETIK IKUS DEZAKEZU



## DIBA. Bainuaren Diseinu Integrala.

DIBA Bainuaren Diseinu Integralerako programaren bitartez, zure ametsetako bainua obrak egin aurretik ikus ahal izango duzu.

**Zatoz Larrañaga Iturgintzara**, atsegin haundiz eta profesionaltasun osoz hartuko zaitugu!!

